

GURE ARBASOEK...

Laura Asensio
Donostia, 16 urte

Gure arbasoek ez zuten hegazkinik
eta bertso papera zen Pello Errotaren interneta;
gure arbasoek ez zuten kontrol-numerikorik,
arragoan berotzen zuten burdina,
izerditan gorputza, eskuetan zizela.

Jakin nahi nuke zerk aldatu gaituen
–benetan aldatu bagara–
bertsoak oraindik ez baitu galdu gatza
eta zizelak minaren odola.
Jakin nahi nuke zertan ez garen aldatu
–ezertan berdinak bagara–
punkyen erromerietan ez baitute kantatzen
Lajak eta Landakandak.

Zure arbasoek ez zekiten nola esan *make love, not war*

baina *Maitia nun zira* asmatu zuten
–maiteminak jota,
Amaiurren hil ziren- herriminak jota–
Gernikan eta Bizkargin.

Jakin nahi nuke zertan hobeagotu gaituen
–benetan hobetu bagara–
herriak minetan baitirau oraindik.
eta Lauaxetaren “Mendi heze, ikurrin eder” hark

oraindik aberri bila.

Jakin nahi nuke zertan ez garen hobeagotu
-zerbaitetan hobeagotu ez bagara-
nire gurasoek ez baitakite euskaraz,
baina haien borondateari esker bainaiz ni
bertso hauek idazteko gauza.

Gure arbasoek...

Erraz ari gara atzera begira.

Zer esango ote dute gerokoek gutaz,
eramaten gaituztenean auzira?